

GOAZEN PRAKTIKARA NOLA EGINGO DUGU?

Betaurrekoak jarri

Hainbat eta hainbat metodologia garatu dira, generoaren ikuspegia GKEen lan guztian zeharkakotasunez abian jarri ahal izateko. Nolanahi ere, tresna guztiek ez dute ezertarako balio, lehenengo eta behin errealitateari buruz daukagun ikuspegia aldatzen ez badugu, eta, horretarako, beste alde batetik begiratzen ikasi beharra dago. Ikuspegia aldatu beharra dago, eta horixe bera egin nahi dugu Garapenerako Hezkuntzari buruzko lanean. Errealitateari beste era batera BEGIRATZEN ikastea eta geure kontzientzia kritikoa garatzea. Gure azterketa kritikoan, beste angelu bat hartu behar dugu kontuan, generoaren ikuspegia, alegia. Errealitateari generoaren “betaurrekoen” bidez begiratzen hastea.

Nondik begiratu?

Begirada hori edukitzeko, errealitateari buruz egiten dugun azterketa kritikoan generoaren ikuspegia kontuan hartu ahal izateko, argi eta garbi izan behar ditugu zenbait ideia:

a) Emakumeenganako bereizkeria egiazkoa da, eta ez da eztabaidagarria, ezta zalantzan jartzekoa ere.

b) Emakumeenganako bereizkeria EZ DA BIDEZKOA (guztiok pertsonak gara eta berdintasuna izan behar dugu eskubideen zein aukeren arloan).

c) Genero-bereizkeria unibertsala da, leku guztietan gertatzen da, “munduko herrialde bakar batean ere emakumeek ez dituztelako gizonak dauzkaten aukera berberak”. Beste era batera (oso kontuan hartu behar dira emakumeen arteko alde handiak, gizarte-mailaren, etniaren, adinaren, aukera sexualaren eta erlijioaren arabera), baina antzekotasunekin.

d) Bereizkeriaren ARRAZOI nagusia ez da inguruabarren araberrako kanpoko faktoreetan bilatu behar (txirotasuna, kokapen geografikoa, etnia, talde erlijiosoa...), ezta kontzepzio biologizista aldaezinetan ere (ez gara eurekin jaio), mundu ZABALEAN nagusi den sistema sozial eta kulturalean, patriarkatuan, baizik. Planeta osoan. Apur batean pentsatuko dugu. XXI. mendean, gure gizarteek osagai dituzten pertsonen erdiak baztertzen dituzte oraindik.

e) Emakume edo gizon moduan izateko eta sentitzeko ezaugarriak, jarrerak eta itxaropenak jaiotzetikoak barik gure sexu biologikoaren arabera ikasiak direnez, ALDATU, eraldatu EGIN DAITEZKE. Historian (denboran) zehar eta geografiako lekuetan zehar, genero-nortasun hori aldatu egin daiteke (ez da gauza bera XXI. mendeko emakumeei eskatzen zaiena eta XV. mendeko emakumeei eskatzen zitzaiena; emakumezkotasunaren eta gizonzkotasunaren eredua desberdina izan daiteke Indian eta Espainian). Dena dela, kasu guztietan emakumezkotasunaren eredua menpean dago, eta

gizonezkotasunaren ereduak baino gutxiago balio du.

f) Guztiok SUBJEKTU aktiboak gara aldaketa horretan, eta zeregin garrantzitsua daukagu, generoen arteko desberdintasun-harremanek eta munduaren kontzepzio androzentrikoak emakume edo gizon moduan daukagun nortasunean daukatelako eragina (nortzuk garen, zergatik garen garen modukoak, zer eskatzen diguten, zeintzuk diren gure aginduak, zein den gure erreferentzia eta izaera-eredu lortezina).

Zentzu tekniko hutsean, generoaren kontzeptuak ez garamatza inora. Era berean, ez da erraz ulertzen, azalpenak buruz ikasten ahaleginduz gero. Oso-osorik ulertu ezean, ez dago inolako azterketa sakonik egiterik. Errezeta magikoetan sinetsarazten digu. Geldiarazi egiten digu. Edonola ere, kontzeptua ulertzen badugu, barruratzen badugu eta arlo pertsonala landuta geure egiten badugu, ahalik eta etekin handiena aterako diegu lehendik dauden tresnei, egokitu egingo ditugu eta geureak asmatu eta sortu egingo ditugu. Helburua ez da buruz ikastea, beraz.

Helburua ikusmen zolira heltzea da, hau da, “betaurrekorik” behar ez izatea, generoaren azterketatik errealitatearen begirada eduki ahal izateko. Une jakin batean, gure begien osagaia izango balitz bezala erabiliko dugu, itsutzen gintuen beloa kenduko dugu eta munduari buruz daukagun begirada aldatuko dugu betiko. Benetan lortzen dugunean, oso zaila izango da atzera egitea, gogoia eduki arren, gogaikarria edo deserosoa iruditzen zaigunean (ezin dugulako iragarkia edo telebista-saioa axolagabetasunez ikusi, ezin dugulako filmaz gozatu edo ezin dugulako egunkaria jarrera urrunetik irakurri) eta etengabe haserrarazten gaituenean.

Generoaren azterketa Garapenerako Hezkuntzan

Zer da generoaren azterketa?

Generoa aztertzean, errealitatera hurbiltzen gara eta konturatu egiten gara emakume edo gizon izateak (ezaugarri biologikoen arabera) ondorioak dituela, genero-nortasuna (gizonezkoa edo emakumezkoa) ezartzen digutelako. Nortasun horrek, gainera, pertsonaren bizitzaren dimentsio guztiak baldintzatzen ditu: izaera eta sentitzeko modua, eskubideak eta mugak, autonomia, nork bere bizitzari buruzko erabakiak hartzeko gaitasuna, askatasuna, gizarte-maila eta esleitzen zaion balioa.

Errealitatea generoaren ikuspegiaren bidez aztertuz gero, argi eta garbi adierazten da emakumeen eta gizonen artean desberdintasun handiak daudela eta nagusitasun zein menpetasun harremanak daudela euren artean. Horren ondorioz, emakumeak baztertzen dituzte bizitzako arlo guztietan. Era berean, emakumeen bereizkeria betikotzen duten egiturak eta prozesuak zeintzuk diren antzemateko aukera ere eskaintzen du (legeria, erakunde sozial eta politikoak, gizarteratzeko jarduerak...).

Generoaren azterketa egiteko, garrantzitsua da galderak egiten ikastea. Galdera horien bitartez, ikusiezina utziko dugu agerian eta emakumeenganako

bereizkeriaren errealitate ezkutua eta zergatiak zeintzuk diren jakingo dugu.

Esate baterako, lan-merkatuan bertan generoaren azterketa eginez gero, honako alderdi hauei erreparatuko diegu: zenbat emakume eta gizon daude langabezian?, zenbat dira biztanle aktiboak?, zeintzuk dira euren soldaten artean dauden aldeak?, ze postutan daude?, ze sektoretan dira nagusi?, zein da emakumeen eta gizonen lanaldia, ugalketarako lana kontuan hartuta?, nork egiten ditu etxeko lanak?, zer egiten dute aisialdian?, ze kontratu-mota daukate emakumeek?, eta gizonek?...

Garapenerako lankidetzako edo laguntza humanitarioko politketan eta proiektuetan ezarritako tresnatzat hartutako genero-azterketa egiteko, nahikoa garatutako teoria daukagu, bai eta praktikarako ereduak ere. Hain zuzen ere, errealitatea ikuspegi horretatik aztertzei aukera eskaintzen duten zenbait teknikaren bitartez egindako esperientzian oinarrituta daude. Garapen-ekintza zehatzeko "genero-harremanak sakon aztertzen direnean sortutako oinarritzko zenbait galdera" sistematizatu dira, testuinguruaren arabera aldatu egin daitezke eta etengabe eraldatzen ari dira.

Garapenerako Hezkuntzari dagokionez, generoa aztertzei metodologiak ez daude hain sistematizatuta. Interesdun guztien artean eratzen ari gara. Hori dela eta, gure proposamena irekia da eta hobetu egin daiteke. Gure "oinarritzko galderen" zerrenda ez da egin daitekeen bakarra. Errealitatearen begirada Garapenerako Hezkuntzako helburu eta jardueretan ezarritako genero-desberdintasunetik eskaintzea da helburua.

Garapenerako Hezkuntzan generoa aztertzei osagaiak

*"Garapenerako Hezkuntzan, oso garrantzitsua da zeri erreparatzen diogun agerian jartzeko, nabarmentzeko eta aztertzei prozesua. Hau da, nabaritasuna antzematea, ezkutuan ez gordetzea eta aipatzen ausartzea."*¹

Agerpenik daukate emakumeek?

Familian, eskolan, kalean, komunikabideetan eta gainerako erakundeetan jasotzen ditugun informazioak eta mezuek gizarteratzeko prozesuan daukate eragina, eta errealitate partzialaren berri ematen dute. Haserre bizian jartzen gara, hirugarren munduko herrialdeetan gertatzen denari buruzko informaziorik ez daukagulako. Hegoaldea ez dago. Unean-unean eta etenekin, besterik ez: oso odoltsua den gerra, urakan suntsigarria, uholde-euriak... Emakumeen bereizkeriari dagokionez, informaziorik eza are handiagoa da. Emakumeak ikusezinak dira sarritan.

Sexuen arabera sailkatutako informazioa eskaintzen duten datu estatistiko eta ikerketa ugari dauden arren (oraindik gehiago behar dira), emakumeak (nortzuk diren, nolakoak diren, zer egiten duten, egitateak nolako eragina duten eurengan, zeintzuk diren euren arazoak eta premia bereziak) generoari begira neutroa (gizonezkoa) den biztanleen azalpenaren belopean daude ezkutatuta.

¹Tusta Aguilar, "La Mitad Invisible. Género en la Educación para el Desarrollo" proiektuaren esparruan egindako prestakuntza-mintegiko hitzaldia. Madril, 2001.

Askotan, ikusezintasun horri eusten diogu Garapenerako Hezkuntzako ekintzetan eta proiektuetan. Igorri nahi ditugun informazioan eta ezagutzan, era esplizituan aipatu behar ditugu emakumezko biztanleak, agerpena izan dezaten. Horretarako, edukiak hartu behar ditugu kontuan (sexuaren arabera sailkatutako datuen erabileraren bidez), eta geure tresnak erabili behar ditugu (lengoaia eta irudiak) modu ez-sexistan.

Emakumeak ikusezinak dira lengoaian.

“Lengoaia adimenak eta giza jokabideak eratutako eremu sinboliko garrantzitsua da”. Lengoiaren bitartez, errealitatea proiektatzen dugu, eta forma ematen diogu: lekuratu, aipatu, azaldu, goraipatu, iraindu, karakterizatu, kalifikatu egiten dugu eta forma edo balioa eman edo kendu egiten dugu. Beraz, baztertu, ukatu, tratu txarrak eman, gutxietsi edo mesprezatu egiten duen lengoaiak ez dio aukera-berdintasunik ematen adierazpideari edo errealitateak edo ezagutzak txarto azaltzen ditu. Era berean, unibertso sinbolikoa eratzen ari da, mundua gizonezkoen erara aipatzen ari da eta emakumeak zein gizonak errealitatearen erabateko eta bidezko ezagutzatik aldentzen ditu, ukatzen dien eremuaren bidez. Horrez gain, aldaezina ere bada.

Lengoiaren eremuak emakume guztiak albo batera uzten ditu eta ikusezin bihurtzen ditu. Horren ondorioz, euren agerpenari edo desagerpenari buruzko “aldi bereko itzulpena” egokitu behar dira. Txiki-txikitatik, gizonezko pluralgileak kontuan hartzen dituen ala ez bereizten ikasten dute, irainak eurentzat berdinak diren ala ez, emakumeren bat aipatu dezaketen ala ez ezohiko zerbaitetan diharduenean eta gizonei euren izaera, ezaugarri edo gustu sexuarekin zerikusia duten izen berberak ezarri ahal zaizkien gutxietsi nahi ditugunean.²

Bi sexueta pertsonen, emakumeen, gizoneen, nesken eta mutilen buruzko aipamen unibertsalak gizonezko aldagaia bilatzeko egiten dira (umeak, ikasleak, irakasleak...). Horrez gain, semantikari begira, gizona hitza pertsona edo jende hitzen sinonimotzat hartzen da (gizonaren historia, gizona lurrian agertu zenean...).

Lengoaia eta bere ikaskuntza ez dira inpartzialak, ideologia androzentrikoaz zipriztinduta daudelako eta bete-betean bultzatzen dutelako inkontzienteak diren jokabideen sorrera. Gainera, jokabideok hortxe bertan egongo dira bizitza osoan zehar, eta aldaezintzat hartuko dira, oso-oso goiz geureganatu ditugulako.

Emakumeak ikusiezinek dira irudietan.

Emakumeak irudietan bertan ere badira ikusezinak. Irudietan agertzen dira emakumeak?, zenbat emakume daude?, lehen planoan edo bigarren planoan daude? Sarritan, emakumeak ez daude edo gutxitan azaltzen dira. Beraz, ez daukagu errealitatearen ikuspegi osoa.³

² Simón Rodríguez, E. (2000).

³ Irudiak estereotipoei buruzko atalean aztertuko ditugu.

Genero-bereizkeria onesten da?

Emakumeak aipatu egin behar dira, agerpena eman behar zaie eta genero-desberdintasunak dituen errealitatearen ezagutza igorri behar da, baina, horrez gain, desberdintasuna aipatu eta azaldu egin behar da. Aipatu ezean, badirudi bereizkeria egon ez dagoela: biztanleak multzoan azaltzen dira, bizi-baldintzetan, eskubideetan eta aukeretan emakumeen zein gizonen eta nesken zein mutilen artean dauden desberdintasunak erakutsi gabe. Era berean, baliteke aldeak desberdintasun moduan ez erakustea eta genero-harreman desberdinetan dagoen gatazka ezkutatzeari. Badirudi emakumeen eta gizonen elkarbizitza harmoniatsua dela: emakumeek ugalketarako lanetan dihardute; eta gizonak, soldatapeko ekoizpen-lanean.

Bereizkeria desberdintasun-terminoetan nabarmendu behar da baliabideak eskuratzeko aukeran eta kontrolean, erabakiak hartzeko prozesuan, munduko biztanleen erdian, emakumeen eskubideen onespenean. Esate baterako, honako hauexek utzi behar dira agerian:

- Txirotasunaren hedapena emakumeen artean.
- Oinarritzeko zerbitzuak eskuratzeko azaldutako bereizkeria: elikadura, osasuna eta hezkuntza.
- Emakumeen ugalketa-lana.
- Emakumeen ekoizpen-lana.
- Emakumeen aurkako indarkeria.
- Euren aitzindaritzak.
- Euren partaidetza politikoak gizarte antolatuan daukan garrantzia.
- Genero-aldarrikapenak.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-helburuen eta garapen-helburuen arteko lotura.
- Emakumeek garapenean egindako ekarpenak.
- Eskubide sexualak eta ugalketarakoak.

Genero-bereizkeriaren arrazoiak

“Garapenerako Hezkuntza (GH) errealitatea ezagutzeko prozesua dela eta jarduteko ulermen egokia eskaintzen digula diogunean, nabarmendu behar da guretzat, GHko eragile moduan, ezagutza guztiek ez dutela balio bera. Guretzat, ezagutza guztiak ez dira interesgarriak. Ekintza bideratzen duen ezagutza interesatzen zaigu. Guretzat ez da batere interesgarria etsipenera garamatzan ezagutza: “gauzak horrelakoxeak dira. Zer egingo dugu, ba! Garai hobeak etorriko dira!”. Gauzak azaldu eta pertsonak mugiarazten dituen ezagutza interesatzen zaigu.

Garapenerako Hezkuntzaren arloan, guretzat ez dira interesgarriak azalpen eta ezagutza esentzialistak, hau da, gizakiok errealitatea aldatzeko ezer egiterik ez dugula pentsarazten digutenak. Horrek guztiorrek zerikusi handia dauka honako galdera hauekin: zer nabarmentzen dugu gauzak aztertu nahi ditugunean?, nola antzematen dugu nabaria dena eta ez dena?, nola antzematen ditugu

eragina duten gauzak eta eragina ez dutenak?”⁴

Arrazoi partzialekin zerikusia daukan genero-bereizkeria

Sarritan, emakumeen aurkako bidegabekeriak inguruabarren arabera kanpoko arrazoiekin zerikusia duela esaten da oraindik. Horra hor azpigarapena, kapitalismoa, txirotasuna, kultura, erlijioa... Horrez gain, faktore horietako bat aldatuz gero, berdintasuna berez agertuko dela uste dugu. Emakumeen bereizkeria beti-beti hortxe dagoela ahazten zaigu, eta beste bereizkeria batzuk aipatzen dira; esate baterako, gizarte-mailaren eta etniaren arabera egiten direnak. “Kanpoko” faktore horiek guztiak garrantzitsuak dira, emakumeen eta gizonen arteko aukera eta eskubide berdintasunerako oztopo gehigarriak direlako. Izan ere, bereizkeria hori areagotu dezakete, baina ez dira eragile nagusiak, bereizkeria unibertsalaz ari garelako.

Emakumeen bereizkeriaren arrazoiei buruzko topikoak:

a) Emakumeen bereizkeria azpigarapenaren ondorioa da. Kasu honetan, tradizioa eta modernotasuna erkatzen dira, eta jakintzat ematen da gizarte “modernotetan” emakumeenganako bereizkeriarik ez dagoela edo gutxienekoa dela. Berdintasun formala (lege-esparrua) eta benetako berdintasuna (eguneroko bizitza) nahasten dira. Emakumeen zapalkuntza aldatu beharreko sistema ekonomiko eta politikoaren ondorioa omen da. Oso-oso garrantzitsua da sexuen arteko berdintasuna aldarrikatzeko legeak dituzten gobernu demokratikoak egotea (euren mugak badituzte ere), euren betearazpena aldarrikatzeko aukera ematen dutelako. Edonola ere, legezkotasun horrek ez du bermatzen bereizkeria amaitu egingo dela, eremu pribatuagoetan ematen delako eta, bertan, legeak oso modu subjektiboan ezartzen direlako oraindik. Ez da arlo pribatura, etxera eta egunerokotasunera iristen, bertan kultura patriarkalean oinarritutako ohiturak, azturak eta bereiztutako zereginak nagusi badira ere.

b) Emakumeen bereizkeriak kulturarekin dauka zerikusia. Argudio batzuek kulturaren arma erabiltzen dute, bi sexuen arteko menderakuntza eta botere harremanetako partaidetzarik eza justifikatzeko. Emakumeen menderakuntza ondare kulturala dela defendatzen da, eta, aldi berean, kritikatu egiten da nolako bereizkeria jasaten duen gutxiengo etniko batek edo egoera txarrean bizi den talde batek kultura horretan bertan.

Aniztasun kulturalaren eta desberdintasunaren errespetuak lotura zuzena dauka giza garapenaren kontzeptuarekin, bai eta generoen arteko berdintasunak ere. Garapenerako Hezkuntzak errespetua, berdintzat hartutako desberdinen onespina eta euren kultura gurea izango balitz bezala onartzeko prozesua bultzatu nahi ditu. Hala ere, emakumeen eskubideak unibertsalak direnez, ezin dira kultura baten baldintzapean egon. Kulturak gizakiek eurek sortzen dituzte, eta, urteen joan-etorrian, bilakatu egiten dira, ez daude geldi eta eraldatu egiten dira. Garapenerako Hezkuntzak berak kultura eraldatzea dauka helburu. Gauza bera gertatzen da erlijioekin, praktikan emakumeenganako

⁴ Tusta Aguilar, “La mitad invisible. Género en la Educación para el Desarrollo” mintegian egindako hitzaldian, Madril, 2001.

bereizkeria-aginduak dituztelako guztiek.

c) Emakumeen bereizkeria tokian tokiko arazoa da. Gaur egungo garapenaren teoriako leloetako batek “orokorrean pentsatu behar dela eta tokian-tokian jardun behar dela” badio ere, askotan ez da gauza bera gertatzen emakumeen giza eskubideak urratzen dituzten arazoak ulertzeko moduarekin. Kasu honetan, orokortasuna (emakumeen menderakuntza eta bereizkeria) tokian tokiko bihurtzen da (leku eta une jakin batean), eta zergatiak muga nazionalak mugatzen dira.

Ez da inondik inora aztertzen nolako lotura dagoen garapen-bidean dauden herrialdeetako emakumeen egoeraren eta garatuak omen diren herrialdeetako emakumeen egoeraren artean. Ezarritako ordena patriarkala zalantzan ez jartzeko estrategia moduan, ez zaie inolako jaramonik egiten bien artean dauden loturei. Esate baterako, badirudi Espainiako emakumeen aurkako indarkeriak ez duela inolako zerikusirik Afganistanen eta emakumeei klitoria ebakitzen dieten herrialde afrikar askotan gertatzen denarekin edo Bosniako gerran jazo zenarekin. Inork ez die aurre egin nahi emakumeen zein gizonen artean dauden botere-harremanei, egongo ez balira bezala. Kasu honetan ere, arlo pribatua ez da oraindik politikoa. Dena dela, gure mugetatik kanpo gertatutakora zabaltzen da arlo pribatua.⁵

Kultura patriarkala, genero-bereizkeriaren jatorria

Patriarkatuaren esanahia “aiten gobernua” da hitzez hitz. Hala ere, feminismoaren interpretazio kritikoek gizonezko menderakuntzarako sistema edo antolamendu soziala dela diote eta historian zehar zenbait forma izan dituela.⁶

Ideologia patriarkalak gizonezkoak emakumezkoen gainetik daudela uste du. Gizonek, euren ezaugarrien arabera eta ezaugarrien ondorioz, eginkizun politiko, ekonomiko, gerratsu, erlijioso eta zientifiko nagusiak hartzen dituzte eurentzat, eta bizitza pribatuko ugalketa-arloa edo eremu publikoko bigarren planora zokoratzen dituzte emakumeak. Gizonezko sexu biologikoak zenbait ezaugarri eta trebetasun dituzenez, munduaren eta gizartearen antolamenduari buruzko erabakiak hartzeko boterea eta eskubideak dauzkate gizonek.

Gizonak jatorri kulturalaren, garaiaren, gizarte-taldearen edo herrialdearen arabera desberdintzen dira euren artean, eta ezaugarri berberak erabiltzen dira emakumeak nolakoak diren azaltzeko. Hala ere, euren gainetik, sexu biologikoak emakumeen izaera historikoa zehazten du, eta, horren arabera, emakumeak beti izan dira gutxiago edozein garai, herrialde edo kulturatan.⁷

Patriarkatuak bereizitako aginduen multzoa inposatzen die emakumeei eta gizonei, izaerari eta sentitzeko moduari buruz (nortasuna / subjektibotasuna), eginkizunari eta botereari buruz (zereginak / lanaren banaketa sexuala /

⁵ Antolín, L. (1999).

⁶ "Sareko Emakumeak" eta AMECOk hitz eta kontzeptu garrantzitsuei buruz egindako glosarioa. Sarean dago ikusgai: www.nodo50.org/mujeresred

⁷ ARGIBAY, M., CELORIO, G. eta CELORIO J. J. (1998).

erabakitzeko gaitasuna eta autonomia). Horrela, emakumeen eta gizonen arteko genero-desberdintasunei, bereizkeriari eta emakumeen genero-zapalkuntzari eusten zaie. Gizonezkoa edo emakumezkoa izateak honako arlo hauetan dauka eragina:

- a) Gure nortasunaren eraketa: nola izan behar gara?, nola izaten uzten digute?
- b) Munduan daukagun lekua, botere-harreman desberdina.
- c) Ekintzarako dugun gaitasuna.
- d) Geure buruaren eta gure ekintzen balioespena.

Munduaren azalpen patriarkala androzentrikoa da, hau da, ar menderatzailea da gauza guztien neurria. Gizonezko gizakia unibertsoko gunetzat hartzen da. Badirudi munduan gertatzen denaren baliozko behatzaile bakarra dela, legeak eman ditzakeen bakarra dela eta justizia ezarri eta gobernatu dezakeen bakarra dela.

Bi eratako patriarkatuak daude⁸: hertsadurakoak eta adostasunekoak. Hertsadurako patriarkatuetan, "indarkeria zehatzen duten ohiturazko legeen edo arauen bitartez adierazten diete emakumeei zer dagoen baimenduta eta zer ez" (esate baterako, talibanen gobernuak legearen arabera inposatzen die Afganistango emakumeei kalera irteteen burkaz estalita joan behar direla). Adostasuneko patriarkatuetan, ordea, berdintasun formala ematen da legearen aurrean. "Gaur egungo mendealdetarrak" dira, eta genero-desberdintasunei, bereizkeriari eta emakumeen zapalkuntzari eusten diete, gizarteratzeko prozesu osoan (familiar, katean, eskolan, elizetan, gobernuetan, komunikabideetan) agertzen diren mito eta estereotipoen bidez.

Errealitateari buruz egiten dugun azterketa kritikoaren barruan, bidezkoak ez diren desberdintasun-harremanak eraldatzeko ekintzaren garapenerako ezagutzaren eragileak garenez, Garapenerako Hezkuntzako lanean sistema eta kultura patriarkala aztertu behar dugu, emakumeek jasaten duten genero-bereizkeriaren jatorria da eta. Arazoaren sustraira iritsi behar gara, hobeto elkar ulertzeko, errealitatea hobeto ulertzeko eta norbera errealitate hori aldatzen hasteko. Gure proiektu eta ekintzen bidez, kultura patriarkal hori gainditu behar dugu eta ezin ditugu euskarri dituen estereotipoak, ohiturak eta jarrerak errepikatu.

⁸ Alicia Puleo, "Sareko Emakumeek" eta AMECOK hitz eta kontzeptu garrantzitsuei buruz egindako glosarioan aipatzen dute. Sarean dago ikusgai: www.nodo50.org/mujeresred

Genero-estereotipoen azterketa

Nola agertzen dira emakumeak?

Nola agertzen dira gizonak?

Zer egiten dute batzuek eta besteek?

Non daude?

Estereotipoak Garapenerako Hezkuntzan

Hegoaldeko herrialdeei eta bertan bizi diren emakumeei buruzko informazioa ez da nahikoa eta irreala da sarritan, zenbait topiko eta estereotiporen gainean eratuta dagoelako. “Hegoaldeari buruz dauzkagun irudiak, arazoei, errealitateei eta pertsonen buruz dugun iritzia azalarazten digutenak, ez dira banan-banako eraketa. Gizarte-arloan sustraituta daude, eta, batez ere, komunikabideek egindako bitartekaritzen bidez eratuta daude. Gizarte-eraketa horiek talde-irudiak dira, eta ezinbestekoak dira hegoaldea izeneko errealitate ugari horiekin nolako harremanak ditugun ulertzeko”.

Hegoaldeari buruzko talde-irudiotan, genero-estereotipoak ere aztertu behar ditugu, hau da, euren sexu biologikoaren arabera emakumeei eta gizonei esleitutako zereginak, ezaugarriak, jarrerak eta balioak. Gainera, sexistak dira emakumeekin, pertsona moduan gutxietsi egiten dituztelako.

Garapenerako Hezkuntzan lan egiten dugunok eta planetako biztanleen bi herenetan (eskubide eta aukera berberak ez dituzten emakumeen eta gizonen multzoan) bereizkeria sustatzen duen sistema bidegabe bezain baztertzailerari eusten dioten mezu menderatzaileei aurre egitea helburu dugunok genero-begiradarik, munduaren begirada feministarik ez badaukagu, sistema androzentriko eta matxista horri eutsiko diogu berriro eta, are okerrago, sendotu egingo dugu, nahiz eta estereotipo eta balio sexista berberen igorpenaren bitartez planetako biztanleen erdiak, emakumeak, baztertu. Estereotipo sexistak zeintzuk diren jakinez gero, gure proiektu eta ekintzetan igortzen ditugun mezuek eta irudiak aztertu ahal izango ditugu, eta, aldi berean, diskurtso menderatzaileen bitartez erakusten diguten errealitatearen azterketa kritikoa osatu ahal izango dugu.

Zer dira estereotipoak?

Estereotipoak “errealitatearen irudi sinplifikatuek eta desitxuratuek eratutako gizarte-irudikapenak dira, eta talde hegemonikoek egindako zabalkuntzarekin daukaten zerikusiaren arabera aztertu ohi dira”. “Bestearen” azalpenaren bozeramailea, estereotipoa une historiko guztietan baliozkotzat hartutako talde-jakituriaren enuntziatua da.

Errealitatearen zati bat osotzat hartzen denean sortzen dira topikoak eta estereotipoak. Horiek horrela, gizabanakoen edo azpitaldeen ezaugarri bereziak (negatiboak izan ohi dira) orokortzen dira biztanle zehatzen multzora. Topiko eta estereotipo horiek sendotu eta egiaztatu egiten dira, gizarte-mezuen igorle nagusien bitartez. Gizarteak onartutako kausalitate-ezaugarriak dira, eta

bizi-baldintzen desberdintasuna legeztatzen dute euren adierazpen ugarietan”⁹. Estereotipoa inprentako hiztegitik hartu zuten, eta inolako aldaketarik gabe behin eta berriro karaktereak inprimatzen dituen altzairuzko edo berunezko plantxa da. Errepikapenaren errepikapenez, estereotipoek indar handia hartzen dutenez, egiazkotzat hartzen dira, inolako hausnarketarik gabe eta oro har ezartzen dira eta inolako eten barik errepikatzen dira. Estereotipoak, hain zuzen ere, kultura bereko pertsona guztien jarreretan, sentipenetan eta ekintzetan agertzen dira.

Estereotipoen ezaugarriak:¹⁰

- Aldatu egiten dira (denboran eta espazioan). Aldi berean, gizarte-egoeren emaitzak direnez, bere horretan iraungo dute harik eta zerbaitek euren aldaketa bultzatu arte.
- Ez dira jaiotzetikoak, ikasiak baizik.
- Orokortzaileak dira.
- Errealitatea sinplifikatu eta partzializatu egiten dute.
- Informazioa gogoratzen laguntzen dute.
- Pertsona askok partekatzen dituzte.

Genero-estereotipoak

Genero-estereotipoak aldeztatik aurretik pentsatutako ideiak, aurreiritziak, sinesmenak eta iritziak dira, gizonezko eta emakumezko ereduak eratzen dute eta gizarte-inguruneak zein kultura patriarkalak emakume eta gizon guztiei ezarri dizkiete euren sexu biologikoaren arabera. Adibideak: gizonak ausartak, indartsuak, independenteak, zakarrak dira; emakumeak sentikorrak, beldurtiak, menpekoak, samurrak dira...

Sexuari eta generoari begira desberdinak diren taldeak osatzen dituzten emakumeei eta gizonei ezaugarriak esleitzen dizkieten bereizgarritasunak, irudi mentalak eta sinesmenak dira, hain zuzen ere. Hona hemen zeintzuk diren alde horiek:

a) Izateko eta sentitzeko moduak. Ausardia, independentzia, arrazionaltasuna, segurtasuna, indarra, erabakitze gaitasuna, soiltasuna eta noblezia. Horra hor euren gizonezko genero-nortasunaren arabera gizonei esleitutako ezaugarriak, jarrerak, izaerak eta sentitzeko moduak.

Bestetik, beldurra, menpetasuna, afektibotasuna, segurtasunik eza, ahulezia, zalantza, konplexutasuna eta zintzotasunik eza dira emakumeei euren emakumezko genero-nortasunaren arabera esleitutako ezaugarriak.

“Gizarte bakoitzean, emakume-izaeraren zenbait estereotipo daude. Bat baino gehiago dago. Emakume-izaerari buruzko irudiak, irudikapenak ugariak dira. Gizarteak, erkidegoak, familiak eta ingurukoek nortasuna esleitzen digute jaiotzen garenetik. Txiki-txikitatik, neskek emakume helduak izaten ikasten dute.

⁹ Fueyo Gutierrez, A. (2002).

¹⁰ Olmeda Valle, A. eta Frutos Frutos, I. (2001).

Horra hor esleitutako nortasuna. Jaio baino lehen badaukagu. Nortasunak esleitutako nortasuna du elikagai, eta norberaren nortasunaren osagaia da. Bertan, gainera, ikasitakoa eta bizitakoa ere hartzen dira kontuan. Nortasuna dinamikoa denez, prozesuan dago beti”¹¹.

b) Eginkizunak, zereginak eta erantzukizunak / generoaren arabera zereginak / lanaren banaketa sexuala. Gure (emakumezko edo gizonezko) genero-nortasunaren osagai moduan, ezaugarriak, izaera, sentitzeko modua, jokabideak ditugu, eta, euren arabera, eginkizun sozial eta kultural desberdinak ezarri dira emakumeentzat eta gizonentzat. Horra hor generoaren arabera zereginak. Emakumezkotasunaren eta gizonezkotasunaren eredu tradizionalean, emakumeei esleitzen dizkiete bizitzaren ugalketaren arloarekin zerikusia daukaten zeregin eta eginkizun guztiak. Ugalketarako zeregin horren arabera, emakumeak “amak” eta euren familiaren zaintzaileak dira, batez ere. Beraz, emakumeek seme-alabak hazi behar dituzte, etxea zaindu behar dute, gaixoak jagon behar dituzte, senarra edo bikotekidea zaindu behar dute, familiari erosotasuna eman behar diote...

Bestetik, ekoizpenaren arloarekin zerikusia daukaten zeregin eta eginkizun guztiak esleitzen dizkiete gizonei. Generoaren arabera zereginak kulturako osagaiak eta ondorioak direnez, lotura estu-estua daukate berarekin. Hori dela eta, zaila da ikasiak direla antzematea. Nolanahi ere, naturaren beraren osagaiak ere badirenez, sexu bakoitzarenak ere badira.

c) Esleitutako eremuak. Ugalketarako zereginari zein ekoizpenerako zereginari esleitutako lanak eta eginkizunak zenbait eremutan garatzen dira: ugalketarako zeregina, arlo pribatuan; eta ekoizpenerako zeregina, arlo publikoan.

Estereotipo sexistak

Genero-estereotipoak sexistak dira emakumeekin, emakumeen bereizkeria sozial, kultural eta politikoa eta gutxiagotasun-egoera justifikatzen dituztelako eta emakumeenganako jardura baztertzaleei eusten dietelako.

Euren azalaren koloreagatik bakarrik pertsonak baztertu, mesprezatu eta gutxien dituzten jarduerak, aurreiritziak eta ideologiak dira arrazakeria. Bestetik, ordea, euren sexuagatik pertsonak baztertu, mesprezatu eta gutxien dituzten jarduerak, aurreiritziak eta ideologiak dira SEXISMOA. Sexismoa jarrera edo ekintza da, eta euren sexuagatik gutxietsi, baztertu, azpiordezkatu eta estereotipatzen ditu pertsonak.

Gizonei esleitutako estereotipoak bat datoz irudi positiboarekin. Are gehiago, gizakien eredu dira. Gizona gizakien sinonimo moduan erabiltzen da (gaur egun ere bai), gizakien prototipo unibertsala da, erreferentziako eredu, alegia. Gizakien erdiak emakumeak badira ere, “besteak” dira, eta desberdinak izaten uzten diete edo desberdinak izateko eskatzen diete (zergatik? ez al dira gizakiak, zer dira?). aldi berean, oster, arrazoi beragatik zigortzen dituzte.

¹¹ Lagarde, M. (1997).

Genero-estereotipo horien ondorioz, sexuen arteko desberdintasuna sortzen da. Era berean, bereizkeria-eragileak direnez, gizakien arteko garapen eta berdintasun helburuen lorpena eragozten dute. Genero-estereotipoen eraginez, emakumeek eta neskek ez dute autonomiarik, eta aukera-berdintasunerako eskubide mugatuak dituzte. Bestetik, euren afektibotasuna adierazteko eskubidea ukatzen diete gizonei eta mutilei.

Hegoaldeko emakumeei buruzko genero-estereotipoak

Emakumeen irudiak, eurei buruz hitz egiten duten testuak, kontakizunetan, istorioetan eta ipuinetan interpretatzen dituzten pertsonaiak eta Garapenerako Hezkuntzako materialetan agertzen diren pertsonaiak aztertuz gero, sarritan azaltzen diren estereotipo sexisten multzoa antzeman ahal izango dugu.

1. Izaerari eta sentitzeko moduari buruzko estereotipoak:

- Emakumeak, emakumezkotasunaren irudiak: emakumezko generoaren araberrako estereotipoek erantzuten dieten nortasun-ezaugarriak eta emozioak dituzten emakumeak dira. Hona hemen euren adierazpenak: atsegintasuna, alaitasuna, mantsotasuna, samurtasuna (ama-emakumeak, zaintzaile-emakumeak), eskuzabaltasuna, ontasuna, etsipena. Bestetik, honako hau adierazten dute gizonezkoen irudiek: seriotasuna, zurruntasuna, gogortasuna, indarra eta bizkortasuna.

- Umetutako emakumeak: pertsona “tolesgabeak eta xaloak” dira, irribarrea dute ezpainetan eta euren begirada lañoa da. Eurengatik zerbait noiz egingo zain daude. Esate baterako, emakume indigenenen irudi asko.

- Emakume pasiboak, zain daudenak: isilak, eserita, begira, adi-adi.

- Biktimak diren emakumeak, biztanle zaurgarriak: oraindik, irudi batzuetan, emakume pasiboak agertzen dira, jesarrita daude, umeetako bat daramate altzoan, ageriko desnutrizio-zeinuak dituzte, aurpegi itxuragabetua daukate eta errukia zein tamala sorrarazten dituen begiradadunak dira. Sarritan, nesken irudiak erabiltzen dira, babesgabetasuna, maltzurkeriarik eza adierazteko, ahulenetan ahulenak direla erakusteko.

- Euren nortasuna ez duten emakumeak, anonimoak, familian duten zereginaren bitartez aurkezten dituzte; esate baterako, “norbaiten ama”, “norbaiten emaztea”, “norbaiten arreba”...

2. Emakumeen zereginen, lanen, eginkizunen eta erantzukizunen gaineko estereotipoak

- Ugalketarako zereginekin zerikusia daukaten emakumeak: amatasunarekin eta etxearen zein familiaren zainketarekin zerikusia daukaten emakumeen nortasuna eta zereginaren garrantzia: emakumeok eta neskok umeak dituzte inguruan, etxeko zereginetan dihardute (egur eta ur bila doaz,

familiako baratzean lan egiten dute, umeak zaintzen dituzte). Hala ere, lan horri ez diote ematen ekoizpen-arloko lanari besteko baliorik (Emakumeak garapenean sartu behar omen dira, emakumeek bertan zeregin garrantzitsua daukatela kontuan hartu gabe. Izan ere, bizitzaren ugalketarako zereginetan daukaten erantzukizuna baino ez da kontuan hartzen, askoz gehiago egin arren eta askoz gehiago edukitzeko eskubidea izan arren). Emakumeek jaten ematen dute, zaindu egiten dute, janaria prestatzen dute eta garbitu egiten dute. Neskek amari laguntzen diote, eta, bien bitartean, gizonak eta mutilek “ekoizpen-lanean” dihardute, atsedean hartzen dute edo jokatu egiten dute.

- Emakumeak ez daude ekoizpen-zereginetan. Gizonak “langile” bakarrak (esate baterako, eskubide sindikalez hitz egiten denean), familiarentzako soldata irabazten duten bakarrak omen dira. Emakumeak ere ez dira jarduera intelektualetan agertzen.

- Emakumeak gizakien salbatzaileak dira. Bere gaitasunen azpitik erabilitako giza kapitala: mezu batzuek emakumeen “bertuteak” goraipatzen dituzte irmotasunaren, erantzukizunaren eta besteenganako arduraldiaren genero-nortasunaren bitartez, oinarritzko eskubideen defentsa justifikatzeko: hezkuntza, osasuna, kreditua... Hona hemen zenbait adibide: “emakumea hezten baduzu, familia osoa hezten duzu”, “emakumeak osasun-gaitasunak bereganatzen badituzte, neska-mutilak osasuntsuago egongo dira, HIESaren arazoa konponduko da eta ez da nahi gabeko haurdunaldirik egongo, behar besteko neurriak hartuko dituztelako” edo “emakumeei kreditua emanez gero, seguru itzuliko dutela”, azkenean eurek diru horren gastuaren gaineko kontrolik ez badute ere. Emakumeen irudi estereotipatu horrek ez ditu emakumeen zein gizonen arteko botere-harremanak eta gatazkak kontuan hartzen.

- Tradizio matxistari eusten dioten emakumeak: etxean nola estatusa daukaten kontuan hartuta, emakume nagusiek (amek, amonek, ahizpa nagusiek) agintea dute, eta, batzuetan, emakume gazteen zentsoreak dira, gizonen pribilegioak betikotu nahian. Horrez gain, egoera horren errundunak dira (beti emakumeek eurek horrelaxe bizi nahi badute!), genero-bereizkeriari eusten diotelako. Egoeraren zergatia zalantzan jarri gabe, nortzuk dira kulturaren eta tradizioen azken zaindariak?, emakumeek zer neurritaraino dituzte arauak hausteko aukerak?, eta, hausten badituzte, nolako ondorioei aurre egin behar diete?

3. Jarrerari eta botereari buruzko estereotipoak

- Emakumeak, etxean edo leku itxietan; gizonak, kanpoko giro aske eta irekietan.

- Emakumeak, teknologiaren, industriaren, nekazaritza estentsiboaren, arrantzaren... eremuetatik kanpo. Euren ekoizpen-lanak ugalketaren arlorako daukaten trebetasunen merkaturaketarekin dauka zerikusia (jokintza edo bordaketa, irakaskuntza, erizaintza...).

- Emakumeak, ezagutza-hartzaileak. Gaitasunei buruzko irudietan, emakumeak sarritan agertzen dira ikasle moduan; eta gizonak, prestatzaile

moduan. Emakumeak kideei entzuten, ikasten... azaltzen dira.

- Emakumeak, bigarren planoan. Bigarren mailako zereginak dituzte. Gizonezko irudiak handiagoak dira, eta emakumeak bigarren planoan agertzen dira. Ipuinetan, esate baterako, pertsonaia osagarriak dira askotan, eta gizonezko pertsonaien erabakiak babestu eta bultzatu egiten dituzte, batzuetan beldur badira ere. Hala ere, ez dira istorioaren protagonista nagusiak.
- Emakumeak, politikaren jarraitzaileak; gizonak, politikako protagonistak: gizonak aitzindariak dira, hitza dute, hitzaldiak eskaintzen dituzte, jendea adoretzen dute hitzaren bidez eta erabakiak hartzen dituzte indartsuak, bizkorrak eta independenteak direla erakusteko. Emakumeak, ordea, egon badaude, baina jarraitzaileak, kideak, pasiboak, esanekoak, otzanak dira eta adi-adi egoten dira.

4. Estereotipoak hegoaldeko emakumeen eta iparraldeko emakumeen arteko alderaketan

Sarritan, irudi edo ipuin askotan, iparraldeko emakumeak (borondatezko lankideak, gazteak, ipuinetako pertsonaiak) agertzen dira hegoaldeko emakumeekin batera, euren artean dauden aldeen berri emateko asmoz. Iparraldeko emakumeak bereizkeriatik eta genero-zapalkuntzatik “liberatuta” daude; eta hegoaldeko emakumeak, tradizioetan ainguratuta. Bertan, gainera, argi eta garbi adierazten da azpigarapena dela emakumeen bereizkeriaren eragilea, garatuta omen dauden herrialdeetan bereizkeria hori egongo ez balitz bezala (eskubideen eta aukeren berdintasun formala eduki arren). Era berean, estereotipo horiei aurre egin behar diegu, eta emakumeen artean dauden aldeen berri eman behar dugu. Hala ere, antzekotasunak zeintzuk diren ere azaldu behar dugu, mundu zabaleko emakumeen eskubide eta aukeretan gertatzen diren desberdintasunei dagokienez.

Partaidetza eta boterea (erabakirako eta ekintzarako gaitasuna)

Ahotsik ote dute emakumeek? Erabakitzeko gaitasunik ote dute?

Jabekuntza Garapenerako Hezkuntzan

Jabekuntza “emakumeek, gizonak, neskek eta mutilek euren egoerak era kritikoan aztertzeke eta egoeron hobekuntzarako urrats egokiak emateko behar dituzten ezagutza, trebetasunak eta jarrera egokia bereganatzeko garatzen duten prozesua” da. Prozesu hori garatu ahal izateko, osotasuntzat hartutako gizarte-balioak berriro zehazteko aukera eskaini behar du testuinguru kulturalak. Banakotasunetik taldetasunera doan prozesua da, eta lotura estua dauka generoen arteko botere-harremanekin”.¹²

Garapenerako Hezkuntza bidezkoa ez den errealitatea aldatzeko ezagutza

¹² “Género en cuestión. Herramientas analíticas y conceptuales”, WIDE (Garapenean dauden emakume europarrak), Wideko aldizkaria, 14. zk., IEPALA argitaletxea, Madril, 2001.

sortzen duen prozesua denez, pertsonen jabekuntza dauka bere helburuen artean.

“Garapenerako Hezkuntzan, oso garrantzitsua da norberaren eta taldearen boterea sendotzea. Nabarmendu egin behar da, gizartean otzantasuna, ezinean gabiltzala adierazten duen sentipena sustatzeko joera gogor-gogorra, kontzientea eta interesatua dagoelako. Ezer egiterik ez dugula adierazten duen sentisazioari aurre egiteko, joera horri aurre egin nahi badiogu, ahalegin handia egin behar dugu guk geuk daukagun boterea onetsi ahal izateko. Oso gai landua izan arren, oso kontuan hartu beharra dago, aurkako norabidean doazen indarrak oso-oso oldarkorrak direlako”.¹³

“Genero-harremanak botere-harremanak dira, eta, gizonen aldean, desberdintasun-egoeran jartzen dituzte emakumeak, hau da, menderatu egiten dituzte. Harreman horiek banan-banan zein taldean adierazten dira, etxeko arlo pribatuan zein instituzio politikoen arloan”.¹⁴ Emakumeen jabekuntza generoaren ikuspegia kontuan hartzeko estrategia da, mundu zabalean emakumeak direlako emakumezko generokoak izateagatik zapalkuntza-egoeretan bizi direnak.

Generoaren ikuspegitik, Garapenerako Hezkuntzak banan-banako arloan zein talde-arloan sustatu nahi ditu aldaketak. Emakume izateko eta gizon izateko modu alternatiboak asmatu nahi ditu, berdintasun-harremanetan oinarrituta egon behar dira eta norberaren botere pertsonala sendotu behar dute. Horrek guztiorrek genero-nortasunari buruzko banan-banako eta taldeko lanarekin dauka zerikusia, eta oso-oso neketsua da. Emakumeen eta gizonen genero-nortasunak nola eratzen diren eta nola balioesten diren onetsi beharra dago. Nork bere baitan begiratu behar du: nire balioak, nire jarrerak, nire estereotipoak, nire aurreiritziak, nire automugak, genero moduan dauzkadan aurreikuspenak.

Esate baterako, prestakuntza edo sentsibilizazio taldeari dagokionez: lehenengo eta behin, nire balioak, nire jarrerak, nire estereotipoak eta nire genero-aurreiritziak nolakoak diren jarri behar dut zalantzan (ondoren, honako haxe bihurtuko dira: nori ematen diodan hitza mahai-inguru batean, nor den taldeko bozeramailea eta nolako balioak eta jarrerak sustatzen ari naizen taldeari zuzentzen natzaionean, erantzukizunak eta zereginak banatzen ditudanean).

Arlo pertsonalean aldaketa hori egin ahal izateko, emakumezotasunaren eta gizonetzotasunaren eredu alternatiboak egon behar dira. Oso garrantzitsua da emakume aitzindariak daudela erakustea eta emakumeen premia eta interes bereziei buruzko testigantzak kontuan hartzea emakumeen euren ahotsaren bitartez. Era berean, oso garrantzitsua da etxekoak, txikiagoa eta bigarren mailakoa den arlo pribatutik egindako aldarrikapenak oso kontuan hartzea eta eztabaidagai nagusiak izatea, gai “nagusiekin” zerikusi handia dutela erakutsi ahal izateko. Emakumeen partaidetza jabekuntzaren alderdi nagusia da.

¹³ Tusta Aguilar, “La Mitad Invisible. Género en la Educación para el Desarrollo” proiektuaren esparruan egindako prestakuntza-mintegiko hitzaldia. Madril, 2001.

¹⁴ López, I., Sierra, B. eta Sojo, D. (2002).

“Partaidetza ez da bakarrik “zerbaitetan parte hartzea”. Partaidetza motibatzea oso zaila denez, denbora, pazientzia eta, batez ere, ideologia handia behar dira hori lortzeko.

Partaidetzan, boterea banatu beharra dago (era guztietako boterea: botere politikoa, botere ekonomikoa, eragiteko boterea, mobilizatzeko boterea, nabarmentzeko boterea, ordezkaritza sinbolikorako boterea, erantzuteko edo protestatzeko boterea, pentsatzeko independentzia...). Orain, boterea beste eragileekin banatu behar da. Beraz, besteekin banatzean, “gaur egun daukadan boterea zatika eta apurka-apurka galduko dut”. Agerikoa denez, jarrera hori abian jarri ahal izateko, (...) aldatu egin beharra dago. Dena dela, jakin badakigu gizaki guztiek ez aldatzeko berezko joera daukatela. Hori dela eta, ezinbestekoa da aldatzeko prest egotea. Izan ere, horrelaxe baino ez dugu lortuko boterea benetan transferitzea. Ikuspegi honetatik, partaidetza hazteko eta boterea eskuratzeko prozesua dela esan dezakegu”.¹⁵

Emakumeen jabekuntzak partaidetza sustatzen du, eta emakumeen partaidetzak euren jabekuntza bultzatzen du.

Erakundeek eta arduradunek generoaren ikuspegitik lan egiteko daukaten gaitasuna

Garapenerako Hezkuntzan eta sentsibilizazioan generoaren ikuspegia kontuan hartzeko, ez da nahikoa gure proiektu eta ekintzetarantz bakarrik begiratzea (edukiak, irudiak, mezuak, jarduerak...). Hori dela eta, erakunderantz eta Garapenerako Hezkuntzako lanean parte hartzen dutenenganantz ere begiratu beharra dago (koordinazioa, prestakuntza, materialen prestaketa...), eragina izango dutelako proiektuok eta ekintzok nola garatu behar diren erabakitzeko orduan. Batzuetan, diskurtsoak eta praktika ez datoz bat. Gure proiektuetako edukietan emakumeak nabarmendu ditzakegu, irudietan estereotipo sexistak zaindu ditzakegu, gure materialetan sexista ez den lengoia erabili dezakegu, eta, aldi berean, generoa “kontuan hartzen ez duen” eta proiektuko helburuen aurka doan jarduera matxista landu dezakegu.

Erakundeetan generoari buruz egindako azterketan, errazago antzematen diren zenbait osagai daude, nabariagoak dira. Horra hor euren lan-estrategia (agirietan jasota dago askotan), euren funtzionamendu-egitura (organigrama) eta behar den moduan funtzionatzeko nahiz erabakiak hartzeko prozedura esplizituak. Edonola ere, hain nabariak ez diren beste osagai batzuk ere badaude, eta nabariak direnek besteko garrantzia edo gehiago dute. Erakundearen kultura osatzen dutenak dira, hain zuzen ere: balioak, jarrerak, eginkizunen banaketa, botere-banaketa, parte hartzeko eremuak, idatzi gabeak, arautu gabeak, baina funts-funtsezkoak, erakundearen lana ulertu ahal izateko.

Zentzu horretan, Garapenerako Hezkuntzarekin daukaten zerikusia kontuan hartuta, honako hauxe galdetu ahal diogu geure buruari: nortzuk dira hezkuntza eta sentsibilizazio sailtako edo arloetako arduradunak, emakumeak ala

¹⁵ CITY-Habitatego partaidetza, Cabo Verde, 2002, ACSUR-Las Segoviaseko “La fábrica de vientos” prestakuntza-programarako “Materiales Complementarios” dossierrean.

gizonak? Zenbat emakume eta zenbat gizon? Lanpostuko eginkizunak aldatu egiten dira, bertan emakumea edo gizona dagoela kontuan hartuta? Soldata aldatzen da? Erakundearen gaineratikoan eragiteko eta erabakitzeko daukaten gaitasuna aldatzen da? Lehentasun desberdina ematen diote proiektu edo programa jakin bati? Nolakoak dira norberaren jarrerak eta balioak genero-desberdintasunari dagokionez? Estereotipoak errepikatzen dituzten jokabide sexistak daude? Nortzuk aukeratzen dituzte prestakuntza zehatza emateko? Prestakuntza eta/edo esperientzia daukate generoan? Gai interesgarria da eurentzat? Nortzuk dira bozeramaileak?...